

## XEDE NAGUSIA

EROSOTASUNA

ONURA

ETENGABEKO HOBEEKUNTZA

KALITATEA

EGUNGO ERREALITERI EGOKITZEA

BERRIKUNTZA

IRISGARRITASUNA

Azkeneko urteotan ikastolako eraikinean berrikuntzak egin dira.

Berrikuntza guzti hauek badute xede nagusi bat: zuen seme-alaben eta ikastolan izaten diren guztien, segurtasuna, irisgarritasuna eta erosotasuna handitzea ikastolak eskaintzen duen hezkuntza zerbitzua etengabe hobetzen jarraitzeko.



elgoibar **ikastola**

Pedro Miguel Urruzuno Koop.



etorkizuna elkarrekin **eraikitzen**



elgoibar **ikastola**

Pedro Miguel Urruzuno Koop.



Ermuaranbide, 7 – 20870 Elgoibar  
Tel 943 744441 [elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)  
[www.elgoibarikastola.eu](http://www.elgoibarikastola.eu)







## Gela eta espazio berriak

### KALITATEZKO HEZKUNTZARI LOTURIKO GUNEAK

Ez dugu ahaztu behar, aurreko ikasturtean beste hainbat lan bukatu zela: DBH-rako **6 gela berri - laborategia** barne- eta bilera areto handia eraiki dira. Solairu horretan bertan, **jolasteko gune estali bat** eta **komun berriak** ere egin dira, elbarrituentzat egokitua barne. Bigarren solairuan **erabilera anitzeko gela** handi bat ireki da.

Gela honek era askotako saioak gauzatzeko aukera ematen du: Musika arloko saioak, Ingeleseko antzerkiak, bideo-saioak eta erakustaldi desberdinak. Azken hauek hiruhilabetean behin egiten dira, izaera pedagogiko nabarmena dute eta, neurri batean, lehen hezkuntzan eta haur hezkuntzan (3-4-5 urte) orain arte egiten ziren jaialdiak ordezkatzeko dituzte.



IGOGAILUA

GELA BERRIAK

GUNE BERRIAK

JOLASTOKI ESTALIA

HARRETA GUNEA

KOMUNAK

ERABILERA ANITZEKO GELA

## egungo errealitateari erantzuna emateko etengabe hobetuz

### ERAIKINAREN HANDITZEA

Eraikina handitzeak nahitaezko bihurtzen zuen **beroketa-sistema** hobetzea, hori dela eta, hainbat aukera aztertu ondoren, honako erabakiak hartu dira: batetik, erregaia gasoliotik gasera aldatzea eta, bestetik, galdarari, tximiniari eta instalazioari zirkuitu berriak eranstea.

Azkeneko fasean, ikastolako egiturak hainbeste eskatzen zuen **igogailua** ere jarri da. Igogailu berri honek ikastolako solairu guztiak komunikatzen ditu eta erabili nahi duenak igogailuaren atariko sarreran dagoen txirrina jo besterik ez du.

### SEGURTASUNA

**Segurtasun-egoeraren berrazterketa** sakona egin da, eta ondorioz, orain arte zegoena nabarmenki indartuko da. **Aireztatze-sistema** desberdinak ere ezarri dira barneko airearen kalitatea hobetzeko.

### KANPO ESPAZIOAREN ERALDAKETA

Ikasturtea hasi genuenetik, **sarrera-irteera berriak** bideratu dira. Horri esker, ikasleen banaketa egokiagoa ahalbideratu da.

Kanpoko espazioek ere eraldaketa izan dute: ikastolako atari nagusian haur txikientzat jolaserako aproposa den **zorua** jarri da, auto eta oinezkoen sarrera-irteeran aldaketak egin dira segurtasuna hobetzeko eta **oinetzkoen bidea** hobeto nabarmendu eta seinaleztatu da.

